

Hispanice

17/21 Prot.

OHARRA HAUSTERRE EGUNARI BURUZ

Hautsaren ezarpena pandemia aldian

Hautsa bedeinkatzeko otoitza egin eta, ezer esan barik, ur bedeinkatuaz ihinzatu ondoren, abadeak behin esango dau batutako guztientzat Erromako Meza liburuko formula: «Bihotz-barritu zaiteze eta sinistu Barri Ona», edo: «Gogoratu hauts zarala eta hauts bihurtuko zarala».

Ondoren, abadeak eskuak garbituko ditu eta maskara jarriko dau sudur eta ahoa babesteko eta hautsa ezarriko deutse hurreratzen jakozanei edo, egokitzat jo ezker, euren lekuetan zutik dagozanengana joango da. Abadeak hautsa hartu eta lagun bakotxaren buru gainera jausten itziko deutso, ezer esan barik”.

Jainkozko Gurtzarako eta Sakramentuen Diziplinarako Kongregazioaren egoitzan, 2021.eko urtarrilaren 12an.

Robert Kard. Sarah

Prefektua

✠ Arthur Roche

Artzapezpiku Idazkaria

Hasierako ohikuneak eta hitzaren liturgia

Sarrera-ant.

Guztiakaz dozu errukia, Jauna, eta ez dozu Zeuk egindako ezer gitxiesten; gizakien pekatuei ez ikusiarena egiten deutsezu, bihozbera zara-eta guztiekin, Jauna, gure Jainkoa. Ik. Jkt 11, 24.25.27.

Damu-otoitzik ez da egingo; horren ordez errautsa ezarriko da.

Otoitza

Lagundu eiozu, Jauna, kristau-herriari
barau-egun honegaz benetan bihotz-barritzeko bidea hasten,
penitentziaz indarturik,
gaiztakeri espirituaren aurkako ahaleaginean
garaile urten dagian.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
Errautsa bedeinkatu eta ezartzea

Homilia egin ondoren, abadeak, zutunik eta eskuak baturik dituala, esango dau:

Oharpena

Senideok: Egin deiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarritzat hartuko dogun errautsa bere grazia ugariz bedeinkatu dagian.

Eta, isilik otoitz labur bat egin ondoren, besoak zabalik, jarraituko dau:

Bedeinkapen—otoitza

Oi Jainko,
damutzen dana errukiz hartzen dozu
eta bihotz-barritzen dana Zeugaz adiskidetzen;
entzun aita-bihotzez zeure herriaren otoitza
eta isuri bedeinkazinoaren † grazia
errautsa hartuko daben zeure seme-alabon gainera,
Garizumako bidea arretaz egin
eta gogo-bihotzak erabarriturik,
zure Semearen pazko-misterioa ospatzera heldu daitezana.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

Edo:

Oi Jainko,
ez dozu pekatarien heriotzea nahi,
bihotz-barritzea baino;
entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta bedeinkatu † egizu buruan ezarriko deuskuen errauts hau;
badakigu hauts garana eta hauts bihurtuko;
emoiguzu, Garizumako egintzen bidez, pekatuen parkamena,
zure Seme biztuaren antzeko biziera barria lortu daigun.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

**Eta ur bedeinkatuz txipriztinduko ditu errautsak, ezer esan barik.
Gero, abadea bertaratutakoei zuzenduko jake eta Erromako Meza-
liburuko esakunea behin esango dau danentzat.**

Bihotz-barritu zaitez eta sinistu Barri Ona.

Edo:

Gogoratu zaitez hautsa zarala eta hauts bihurtuko.

**Ondoren, abadeak eskuak garbitu eta maskara jarriko dau sudurra eta
ahoa babesteko eta errautsa ezarriko deutse hurreratzen jakozan
guztiei edo, egokitzen jo ezker, bera hurreratuko da euren lekuan
zutik dagozanengana.**

Abadeak hautsa hartu eta lagun bakotxaren buru gainera jausten itziko dau ezer esan barik.

Errautsa ezartzea amaitutakoan, eskuak garbituko ditu abadeak; gero Jainkoaren herriaren otoitza egin eta Mezea ospatzen jarraituko dau, ohi danez.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin deiogun otoitz Jainko gure Jaunari. Berak entzun egiten gaitu graziazko aldi honetan; lagundu egiten deusku salbazinozko egun honetan.

—Eleizearen alde; Jainkoaren Hitza entzun eta eten barik otoitz eginez, Pazkoa zintzo ospatu daian. Eskatu deiogun Jaunari.

—Roguemos al Señor. Gosez diranen alde; gure egun honetako barauari esker ezinbesteko janaria izan daien. Eskatu deiogun Jaunari.

—Fede barik bizi diranen alde; Jainkoren doeari zabaldu deioen euren bihotza. Eskatu deiogun Jaunari.

—Gaur hautsa jaso dogunon alde; otoitza, limosna eta baraua ganoraz egin daiguzan, zer esan gura daben ulertuz eta Jainkoaren grazia alperrik galdu barik. Eskatu deiogun Jaunari.

JAINKO Aita gurea,
Zuk ez dozu pekataria hil daiten,
bihotz-barritu eta bizi daitela baino,
entzun, arren, gure erreguak.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

Eukaristiaren liturgia

Mezak betiko lez jarraituko dau.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dogun sakramentuak, Jauna,
eragin deigula Zuk atsegin dozun
eta guretzat osasungarri dan baraua egitera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

Amaierako ohikunea

Jauna zuekin.

Herriak erantzungo dau:

Eta zure espirituarekin.

Agurra egitekoan, abadeak, herriari begira eta eskuak haren gainera zabaldurik, otoitz hau esango dau:

Oi Jainko, emon bihotz onez damu-espirtua
zure aurrean apalik makurtzen diran zure seme-alabei,
damutuei Zuk agindutako saria
zeure errukiari esker lortu daigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R Amen.

Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, † eta Espiritu Santuak.

Herriak erantzungo dau:

Amen.

Zoaze Jaunaren bakean!

Herriak erantzungo dau:

Eskerrak Jainkoari.